UDAL KIROL INSTALAZIOETAN DANTZAREKIN LOTUTA DAUDEN DIZIPLINEN ZERBITZUAREN GAUZATZEA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN PLEGUA

AURKIBIDEA

1. Kontratuaren helburua 3

1.1 Kontratuaren xede diren zerbitzuak 3

2. Zerbitzuaren ezaugarriak 5

2.1 Kontratistaren betebehar nagusiak 7

2.2 Udalaren betebehar nagusiak 8

2.3 Kontratistaren eta Udalaren arteko koordinazioa 8

3. Giza baliabideak 9

3.1 Pertsonalaren kontratazioa 9

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: 2025eko urritik 2026ko ekainerako eskaintza (neguko ikastaroak) 4
Taula 2: 2025eko uztaila eta abuztuko eskaintza (udako ikastaroak) 4
Taula 3: 2024 urteko urria-azaroa-abendua zerbitzu orduak 5
Taula 4: 2025 urteko zerbitzu orduak 5
Taula 5: 2026 urteko zerbitzu orduak 6
Taula 6: 2026,2027 eta 2028 urteetarako estimaturiko ordu kopurua 6

UDAL KIROL INSTALAZIOETAN DANTZAREKIN LOTUTA DAUDEN DIZIPLINEN ZERBITZUAREN GAUZATZEA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN PLEGUA

1. Kontratuaren helburua:

Plegu honen helburua da Lekeitioko Udal kirol instalazioetan dantzarekin lotuta dauden diziplinen eskaintza eta garapena esleitzeko lehiaketa deialdiaren oinarri teknikoak arautzea.

Kontratua jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko, 2/2023 Legean eta martxoaren 16ko, 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bat egina onartzen duenean oinarrituko da.

1.1 Kontratuaren xede diren zerbitzuak:

Kontratuaren xede den zerbitzua dantzarekin lotutako jarduera gidatuak eskaintzea da.

Gaur egun, Lekeitioko Santi Brouard Udal kiroldegiko erabilera anitzeko aretoan dantzarekin lotuta dauden ikastaroak eskaintzen dira.

Eskaintzaren helburua era bideratuan eta bide ezberdinak erabilita, erabiltzaile guztientzako dantza diziplina mota ezberdinak eskaintzea da. Horiek helburu ezberdinak dituzte: gaitasun fisikoa hobetzea, gozamena eskuratzea, ohitura osasuntsuak eskuratzea… Orokorrean, oinarri erritmiko eta musikala hartuta eta material ezberdinak erabiliz, monitore kualifikatuen bitartez, kalitatezko jarduera motorrak eraikitzen dira. Horiek garapen progresibo eta egokitu bat eramaten dute.

Honako hauek dira eskaini izan diren diziplinak:

- Dantza aerobikoa
- Dantza akrobaziak
- Balleta
- Funky
- Dance pump
- Luzaketak eta mobilizazioa

Laburbilduz, enpresa esleipendunaren betebeharra izango da diziplina horiek edota atera daitezkeen berriak emateko titulazio ofiziala duten langile kualifikatuak kontratatzea.

Gaur egungo neguko ikastaroen eskaintzaren ordutegi zehatza honako hau da:

Taula 1

2025eko urritik 2026ko ekainerarteko eskaintza (neguko ikastaroak)

IKASTAROA	ADINA	EGUNAK	ORDUTEGIA	ORDUAK/ASTEAN
DANCE PUMP	16 urtetik gora	Asteartea-osteguna	8:10-9:10	2
	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	15:30-16:30	2
	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	19:15-20:45	2
DANTZA AEROBIKOA	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	9:20-10:20	2
	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	17:00-18:00	2
LUZAKETAK & MOBILIZAZIOA	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena-ostirala	8:15-9:15	3
	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	10:20-11:20	2
	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	18:00-19:00	2
	16 urtetik gora	Asteartea-osteguna-ostirala	15:30-16:30	3
	16 urtetik gora	Asteartea-osteguna	16:00-17:00	2
	16 urtetik gora	Asteartea-osteguna	19:05-20:05	2
DANTZA AKROBAZIAK	16 urtetik gora	Ostirala	18:00-19:00	1
BALLET UMEAK	6-7 urte	LH1-2 Astelehena-asteazkena	18:00-19:00	2
	8-9 urte	LH3-4 Asteartea-osteguna	18:00-19:00	2
	4-5 urte	HH4-5 Ostirala	17:00-18:00	1
	10-11 urte	LH5-6 Asteartea-osteguna	17:00-18:00	2
	13-16 urterarte	DBH Astelehena-asteazkena-ostirala	19:00-20:15	3:45

Iturria: elaborazio propioa

Udako ikastaroen eskaintza, aldiz, aurreko udan honako hau izan zen:

Taula 2

2025eko uztaila eta abuztuko eskaintza (udako ikastaroak)

IKASTAROA	ADINA	EGUNAK	ORDUTEGIA	ORDUAK/ASTEAN
DANCE PUMP	16 urtetik gora	Asteartea-osteguna-ostirala	8:15-9:15	3
	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena-ostirala	10:30-11:30	3
	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	15:30-16:30	2
	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	19:30-20:30	2
STRETCH	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	8:15-9:15	2
	16 urtetik gora	Asteartea-osteguna-ostirala	9:25-10:25	3
	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	10:30-11:30	2
	16 urtetik gora	Asteartea-osteguna	15:30-16:30	2
	16 urtetik gora	Asteartea-osteguna	19:30-20:30	2
DANCE FIT	16 urtetik gora	Astelehena-asteazkena	9:25-10:25	2
JAZZFUNKY	6-8 urte	Asteartea-osteguna	10:30-11:30	2
	9-11 urte	Astelehena-asteazkena	11:30-12:30	2
	12 urtetik gora	Asteartea-osteguna	11:30-12:30	2

Iturria: elaborazio propioa

2. Zerbitzuaren ezaugarriak:

Zerbitzua urriaren 1etik abuztuaren 31ra eskainiko da. Irailean zerbitzua eten egingo da. Horrez gain, urtarrilak 1 eta 6, martxoak 19, aste santuko jai egunak, maiatzak 1, uztailak 25 eta 31, azaroak 1, abenduak 6, 8, 24, 25 eta 31 egunetan ez da zerbitzurik eskainiko. Egun horietaz aparte, urteko egutegiaren arabera, baliteke beste egun batzuetan ere zerbitzurik ez egotea.

Bi eskaintza mota ezberdintzen dira: neguko ikastaroak (urritik-ekainera) eta udako ikastaroak (uztaila eta abuztua). Hurrengo tauletan azken urteetan eskaini diren zerbitzu orduak adierazten dira.

Taula 3

2024 urteko urria-azaroa-abendua zerbitzu orduak

2024	ORDU KOPURUA
Urria	177
Azaroa	171
Abendua	149
GUZTIRA	**497**

Iturria: elaborazio propioa

Taula 4

2025 urteko zerbitzu orduak

2025	ORDU KOPURUA
Urtarrila	159
Otsaila	155
Martxoa	149
Apirila	140
Maiatza	140
Ekaina	159
Uztaila	51
Abuztua	48
Iraila	-
Urria	174
Azaroa	143
Abendua	134

GUZTIRA	**1.452**

Iturria: elaborazio propioa

Taula 5

2026 urteko zerbitzu orduak

2026	ORDU KOPURUA
Urtarrila	133
Otsaila	137
Martxoa	151
Apirila	138
Maiatza	143
Ekaina	149
GUZTIRA	**851**

Iturria: elaborazio propioa

Ikus daitekeenez, 2024ko urritik 2025eko ekainera, hau da, neguko eskaintzan, 1.399 ordu eskaini ziren. 2025eko urritik 2026ko ekainera, ostera, 1.302 ordu.

Bestalde, udako eskaintzan, 2025eko uztaila eta abuztuan, 99 ordu eskaini ziren.

Aurreko urteetako orduak aintzat hartuz, hurrengo urteetarako ordu kopuruen aurreikuspena honako hau da:

Taula 6

2026,2027 eta 2028 urteetarako estimaturiko ordu kopurua

URTEA	Neguko ikastaroak	Udako ikastaroak	GUZTIRA
2026	1.290	244	**1.533**
2027	1.358	214	**1.572**
2028	1.349	210	**1.559**
			4.664

Iturria: elaborazio propioa

2.1 Kontratistaren betebehar nagusiak:

Honako hauek izango dira gutxienez bete beharrekoak:

- Jardueren eskaintza hobetzeko beharrezkoak diren proposamenak egitea eta hala badagokio, aparteko ekintzen aurrekontuak aurkeztea.

- Zerbitzuari atxikita dauden langileek, kontratuaren xede izanik, esleitu zaizkien jarduerak emateko beharrezkoa den legez eskatutako gutxieneko titulazioa izatea.

- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren Erabilera Planean erregulatua.

- Langileen laneko jantzien erantzule izatea.

- Saileko arduradunarekin biltzea, besteak beste, zerbitzuaren jarraipena egiteko.

- Zerbitzuaren eskaintzan gorabeheraren bat eragin duten gertakari guztiak idatziz komunikatzea saileko arduradunari.

- Instalazioak eta bertako ekipamenduaren erabilera egokia eta zaindua egitea.

- Nahiz eta erabiltzaile bat bakarra etorri saioren batera, saioak aurrera eramatea. Ikastaroren bat bertan behera utzi ahal izateko saileko arduradunaren oniritzia beharko da.

- Legezko betebeharrak, lanekoak eta Gizarte Segurantzakoak betetzea eta adjudikazioko zerbitzua ematen duten langileei gutxienez indarrean dagoen hitzarmen kolektiboan xedatutakoaren araberako soldata ordaintzea.

- Esleipendunak bere gain hartzea bere lantaldearen burutze, ez burutze edo burutze akastunaren erantzukizuna.

- Enpresa esleipendunak Lekeitioko Udalari atxikita dauden instalazioetarako dauzkan langileen artean aldaketa, uzte edo lekualdaketaren bat gertatuz gero, berehala jakinaraztea saileko arduradunari. Lekeitioko Udalak beretzat gordetzen du langilearen kualifikazio profesionala eta egokitasuna aztertzeko eskumena, eta langileak aldaratu ditzake, gauzatu behar dituen funtzioetarako egokiak ez direla uste badu.

- Enpresak ziurtatzea zerbitzuari atxikiturik dauden langileek, besteak beste, honako puntu hauek ezagutzen dituztela:

    - Lekeitioko Udalaren kirol instalazioen araudi orokorra.
    - Instalazioan egiten diren oinarrizko eta eguneroko zereginak.
    - Zereginak aurrera eramateko ezinbestean bete eta erabili beharreko prozedura funtsezkoenak.
    - Kontratu honen zehaztapenak.

2.2 Udalaren betebehar nagusiak:

- Ikastaroak eman ahal izateko baliabideak eskuragarri jartzea: espazioak, materiala…

- Enpresari Udal kirol instalazioen egutegi eta ordutegien berri ahalik eta azkarren ematea.

- Zerbitzuarekin zuzenean lotura duten kexa, iradokizun edo eskaeren berri ematea enpresa esleipendunaren arduradunari.

- Esleipendunak hilero aurkeztu beharreko fakturaren jarraipena egitea. Hileroko orduak kontrolatu eta fakturei oniritzia ematea, ondoren ekonomia sailak honen ordainketa egiteko.

2.3 Kontratistaren eta Udalaren arteko koordinazioa:

Esleipendunak lotura gisa arduradun bat aurkeztu beharko du. Arduradun hori izango da Udalarekin etengabeko harremanean egongo dena. Koordinazio horren metodologia proposatu beharko da.

Enpresa esleipendunak gerta daitekeen arazo edo gorabehera aipagarri guztien berri eman behar dio Lekeitioko Udalari. Aldez aurretik aipatu den moduan behar adina bilera egingo dira esleipendunaren

eta Udaleko saileko arduradunaren artean. Izendaturiko arduraduna operatibo egon beharko da 8:00etatik 21:00etara.

3. Giza baliabideak:

Zerbitzuak era egokian eskaini ahal izateko esleipendunak lantalde bat izango du. Lantaldearen curriculum akademikoa eta profesionala egokia izan beharko da zerbitzuen beharrizanak estaltzeko. Horregatik, ikastaroak emango dituzten monitoreek, gutxienez, dantzarekin loturiko titulazioren bat izan beharko dute. Prestakuntza titulazio ofizial baten bidez egiaztatu beharko da.

Gainera, kontuan izanik zerbitzuak adingabeekin harremana izatea dakarrela, langile guztiek indarrean izan beharko dute delitu sexualen aurrekari penalik ez izanaren ziurtagiria. Horrekin batera, enpresak neurri eta protokolo egokiak ezarri beharko ditu adingabeen aurkako indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta horren aurrean jarduteko.

Enpresa esleipendunak zerbitzuetako langileen titulazioak helaraziko dizkio Udalari kontratua sinatzeko garaian, baita langileen edozein ordezkapen egiten den momentuan, ordezkoek goian zehaztutako ezaugarriak betetzen dituztela egiaztatzeko. Esleipendunak momentuan ordezkatuko ditu langileen baja, norberaren gaietarako baimen eta antzerakoak, zerbitzuan beti beharrezko giza baliabideak egon daitezen.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, kirol jarduera eta ikastaroetako monitoreek Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila egiaztatu beharko dute ahozko eta idatzizko gaitasunean, gehienez ere lizitazio hau ebatzi eta ikasturte bateko epean.

Baldintza Administratibo Berezien Agirian-hizkuntza-irizpideen baldintza orokorrak eta espezifikoak jasotzen dira.

3.1 Pertsonalaren kontratazioa:

Enpresa esleipendunak legezko betebeharrak, lanekoak eta Gizarte Segurantzakoak bete beharko ditu, eta adjudikazioko zerbitzua ematen duten langileei, gutxienez, indarrean dagoen hitzarmen kolektiboan xedatutakoaren araberako soldata ordaindu beharko zaie.

Horrekin batera, gizarte segurantzako langileen erlazio nominalaren dokumentua (RNT) eta kotizazioen kitapenaren erlazioko dokumentuaren entrega egin beharko da.

Lekeition, sinadura digitalaren egunean

LEIRE FERNANDEZ BEITIA - 44344990R

Firmado digitalmente por LEIRE FERNANDEZ BEITIA - 44344990R
Fecha: 2026.05.29 14:20:23 +02'00'

Kirol koordinatzailea

Izp.: Leire Fernandez Beitia